

Bilbon, 2019ko ekainaren 5ean

CAFeko akziodunei:

CAF enpresa multinazionalaren akziodun eta erabakien arduradun nagusi zareten aldetik zuzentzen gatzaizkizue.

Jerusalemen tren arinaren bigarren linea eraikitzeke eta lehendik dagoena ustiatzeko lizitazio-prozesu batean dihardu zuen enpresak, Superbus eta Shapir Civil and Marine Engineering konpainiarekin batera. CAFek esku hartzen duen lizitazio horren xedea hau da: Jerusalemen mendebaldea eta Zisjordaniako israeldar kokaguneak elkarri lotzea, tren arineko sare batez.

Giza eskubideen aldeko kontzientzia duen gizarte zibilaren partaide garenez, honetaz ohartaraztera gatozkizue: nazioarteko zuzenbidearen aurkako urraketa larriak egin ditzake CAFek lizitazio-proiektu horretan aurrera jarraitzen badu. Horregatik, zuen enpresako erabakien arduradun nagusiak zaretenez, eskatzen dizuegu lizitazio horretatik erretiratzeko, enpresaren irudia kaltetzeaz gain beste hau ere ekar baitezake berekin proiektu horretan parte hartzeak: gerra-krimenak eta gizateriaren aurkakoak egiteko laguntzaile material bihurtzea CAF.

Nazioarteko legeriaren arabera, legez kanpokoak dira Palestinako lurralde okupatuan Israelek dituen kokaguneak, eta hala berresten dute Nazio Batuen, Nazioarteko Justizia Auzitegiaren, Genevako Konbentzioaren eta giza eskubideen aldeko nazioarteko beste zenbait organismo eta mekanismoren ebazpenek.

Palestinako lurralde okupatuko israeldar kokaguneek urratu egiten dute Genevako Konbentzioaren 49. artikulua; hau da: «*Okupazio-botereak ezin du biztanleriarik deportatu edo transferitu lurralde okupatura*». Konbentzioaren 53. artikulua, berriz, beste hau da: «*Debekatuta dago jabetza pribatua zein publikoa suntsitzea okupatutako lurraldeetan*».

2016ko abenduaren 23an Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak onartutako 2334 Ebazpenak, berriz, deialdi hau egiten die estatuei: «*Bereizteko, beren harremanetan, Israelgo Estatuaren lurraldea eta hark 1967tik okupatutako herrialdeak*». Bide batez, Israelek Zisjordanian dituen kokaguneak legez kanpokatzen jo zituen Ebazpenak, beste behin ere.

2004ko uztailaren 9an, Palestinako lurralde okupatuan harresi bat eraikitzearen ondorio juridikoei buruzko Iritzi Aholku Emaila hau plazaratu zuen Nazioarteko Justizia Auzitegiak: «*Nazioarteko zuzenbidearen aurkakoak dira potentzia okupatzailea — Israel— Palestinako*

lurralde okupatuan —ekialdeko Jerusalem eta inguruak barne direla— eraikitzen ari den harresia eta hari atxikitako erregimena».

Halaber, hau dio Auzitegiaren Iritziak: *«Kontuan izanik zer eskubide eta betekizun dauden tartean, Auzitegiak uste du estatu guztiek daukatela Palestinako lurralde okupatuan —Jerusalemen ekialdea eta inguruak barne direla— harresia eraikitzeak sortuko lukeen legez kontrako egoera ez onartzeko betekizuna. Horrez gain, eraikuntza horrek eragingo lukeen egoerari eusteko laguntzarik eta baliabiderik ez emateko betekizuna ere badute. Nazio Batuen Gutunari eta nazioarteko zuzenbideari zor zaien errespetua dela eta, estatu guztiei dagokie ardura hau: ezabatzea harresia eraikitzeak Palestinako herriari bere buruaren jabe izateko eragingo liokeen eragozpen oro. Horrez gain, gerra-garaian herritar zibilei zor zaien babesari buruzko 1949ko abuztuaren 12ko Genevako Hitzarmenaren atalaren sinatzaile diren estatu guztiek betekizun hau dute, Nazio Batuen Gutunari eta nazioarteko zuzenbideari zor zaien errespetuaren arabera: Hitzarmen horretan jasota dagoen nazioarteko zuzenbide humanitarioa betearaztea Israeli».*

Bestalde, proiektu hori bateraezina da CAFen Jokabide Kodearekin; izan ere, aldarrikatzen du konpromiso irmoa duela, lan egiten duen herrialde guztietan, eskubide hauek bermatzen dituzten neurriekin: *«Oinarrizko eskubideak, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren gainerako beste zeinahi printzipio eta Nazio Batuen Mundu Itunak giza eskubideen eta laneko, ingurumeneko eta ustelkeriaren aurkako eskubideen alorrean jasotzen dituenak».* Halaber, Jokabide Kodeak dio *«indarrean den araudi juridikoa eta CAFen Jokabide Kodea zein barne-araudiak zorrotz bete behar dituela CAFekin lan egiten duen edo harremanak dituen erakunde eta pertsona orok. Erantzukizun sozial korporatiboari dagokionez, nabarmentzekoak dira giza eskubideekin, gizon- emakumeekin, ingurumenarekin eta delituekin lotura duten jarduera-arriskuak, berariaz proposatzen baitugu tolerantzia-maila zero izatea»*

Nazio Batuek eta, zehazki, Giza Eskubideen Goi Komisarioak, 2011n prestatu zituen Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko Printzipio Gidariak. Bost sortze-printzipio eta zazpi jarduera-printzipio ditu agiri horrek, guztiak ere enpresei zuzenduak: *«Aplikagarri diren lege guztiak betetzea eta nazioarteak onartutako giza eskubideak errespetatzea, enpresek nonahi dihardutela ere; formulak bilatzea nazioarteak onartutako giza eskubideen printzipioak errespetatzeko, haien kontrako eskaerarik jasotzen dutenean; eta giza eskubideen aurkako urratze larriak eragiteko edo haiei laguntzeko arriskuak kontuan izatea legea betetzean, enpresak nonahi diharduela ere».* Estatu Espainoleko gobernuak, berriz, 2017ko irailean onartu zuen «Enpresen eta giza eskubideen alorreko Ekintza Plan Nazionala», Estatu Espainolean enpresei eta giza eskubideei buruzko printzipio gidariak aplikatzeko.

CAFek parte hartuko balu Jerusalem eta Israelek Palestinako lurralde okupatuan dituen kokaguneak elkarrekin lotzeko tren arin baten proiektuan, nabarmen urratuko lituzke Genevako Konbentzioa, Nazio Batuen hainbat ebazpen eta Nazioarteko Justizia Auzitegiaren irizpena; horrez gain, Estatu Espainoleko Ekintza Plan Nazionalaren Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko Printzipio Gidarien aurka arituko litzateke, bai eta enpresaren Jokabide Kodearen kontra ere.

Dagoeneko, nazioarteko enpresa ugari erretiratu dira lizitazio-proiektutik:

Kanadako Bombardier, Australiako Macquarie, Alemaniako Siemens eta Frantziako Alstom. Systra (Frantziako Estatuaren SNCF tren-konpainiaren filiala), berriz, iaz erretiratu zen, eta aurreko astean jakin zen Greziako partzuergo batek ere eskaintzarik ez aurkeztea erabaki duela azkenik. Linea Gorria deritzona egun ustiatzen duen Citty- Pass konpainiak ere alde egin du.

Giza eskubideen aurkako urratzeen ugaritasuna ikusirik, zazpitik bira jaitsi da tren arina hedatzeko eskaintzen kopurua: Txinako CRRCrena eta CAF barne hartzen duen beste bat.

Arrazoi horiek direla eta, berriro gatozkizue eskatzera CAF proiektu horretatik erretiratzeko, Palestinako lurraren harrapaketa eta Palestinako lurralde okupatuan Israelen kokaguneak hedatzeari lagunduko bailioke eta giza eskubideen aurkako urraketa larriak eta nabarmenak eragingo bailituzke.

Zuen eskura gaituzue azken erabakia hartu aurretik sortzen zaizuen zalantza oro argitzeko. Espero dugu azken erabaki hori bat etortzea CAFen Jokabide Kodearekin eta nazioarteko zuzenbidearekin.

Adeitasunez,

ACPP

Adeco

Baskale Elkartea

Confederación General del Trabajo - CGT

Confederación Intersindical Galega - CIG

Coordinadora de ONGD de Euskadi

Euskadi Cuba

Hegoa Bizilur

Intersindical Alternativa de Cataluña - IAC

KCD

Komite Internazionalistak

Mugen Gaietik

Mundubat

Mundubat

Novact Instituto Internacional por la Acción Noviolenta

Observatorio de Empresa y Derechos Humanos - ODHE

Pausumedia

Paz con Dignidad

Paz y Solidaridad

Rasd Donostia

RESCOP Red de Solidaridad Contra la Ocupación de Palestina

Sare Antifaxista

SodePaz

STEILAS

Suds